

INFORMAZIO-ZIRKULARRA

Gasteizen, 2018ko ekainaren 30ean

Pasa den maiatzaren 18an, Espainiako Gobernuak 293/2018 Errege Dekretua onartu zuen, plastikozko poltsen kontsumoaren murrizketari buruzkoa; dekretuan xedatzen denez, **uztailaren 1etik aurrera** debekatuta dago kontsumitzaileei plastikozko poltsak doan ematea ondasun edo produktuen saltokietan. Beraz, egun horretatik aurrera, **plastikozko poltsak kobratu egin behar dira**.

Saltokietarako plastikozko poltsa-motak

Plastikozko poltsen araudi berrian jasota dator zer **plastikozko poltsa-mota** erabiltzen diren saltokietan:

1. **Plastikozko poltsa arinak: 50 mikratik beherako lodiera** dutenak. **Erabilera bakarreko poltsa** esaten zaie normalean, oso meheak izaten baitira.

2. **Plastikozko poltsa oso arinak: 15 mikratik beherako lodiera** dutenak. Garbitasunagatik erabili ohi dira, soltean saldutako produktuak garraiatzeko –hala nola fruta, egoskariak, haragia eta arraina–, elikagaiak ez daitezen alferrik galdu.

3. **Plastiko zatigarrizko poltsak:** material plastikoz daude eginda, eta gehigarriak izaten dituzte material plastiko hori mikrozatitan banatu dadin katalizatzen; hau da, gehigarriak plastikoz daude eginda, eta, baztertzen direnean, mikrozatitan banatu eta ingurumenarekin fusionatzen dira.

4. **Plastikozko poltsa konpostagarriak:** poltsa biodegradagarri ere esaten zaie, eta **zereal-almidoiz** daude eginda. Ontzi eta bilgarri konpostagarri eta biodegradagarrien ekoizpenerako baldintzak ezartzen dituen EN 13432:2000 arau europarra betetzen dute.

Zenbatean kobratu behar da plastikozko poltsa-mota bakoitza?

Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, *saltzaileek diru-kantitate bat kobratuko dute kontsumitzaileari emandako plastikozko poltsa bakoitzagatik. Plastikozko poltsen prezioa erabakitzeke, saltzaileek I. eranskinean ezarritako gutxi gorabeherako prezioak har ditzakete erreferentziatzat. **Gutxi gorabeherako prezio horiek** plastikozko poltsen lodieraren arabera dira:*

- 15 mikratik beherako lodiera duten poltsak, poltsa oso arinen definizioan jasotakoak ez beste erabilera batzuetarako: **5 zentimo/poltsa**.
- 15 eta 49 mikra arteko lodierako poltsak: **15 zentimo/poltsa**.
- 50 mikrako edo hortik gorako lodierako poltsak: **15 zentimo/poltsa**.
- 50 mikrako edo hortik gorako lodierako poltsak, haiek egiteko erabilitako plastikoaren %50 edo gehiago eta %70 baino gutxiago birziklatua bada: **10 zentimo/poltsa**.

Hemen kontsulta daiteke Errege Dekretua:

https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2018-6651